

LEIOAKO UDALAK ETA EHU-K IKERKETA PROIEKTU BATERATU BAT GARATUKO DUTE MINBIZIA DUTEN PERTSONEI ARIKETA FISIKOA EGITEKO PRESKRIPZIOA OPTIMIZATZEKO

• **Proiektu aitzindaria da, eta ebaluazio-sistema bat jarri nahi du abian, parte-hartzaileak osasun-egoeraren eta gaitasun fisikoen arabera sailkatu ahal izateko, paziente bakoitzaren beharretara egokitutako jarduera-programa seguruak, eraginkorrak eta egokiak diseinatzeko.**

(Leioa, 2025eko irailaren 22a) .- Leioako Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute gaur, ariketa fisikoaren eta minbiziarekin duen harremanaren esparruan ikerketa-proiektu aitzindari bat garatzeko.

Akordioa Leioako alkate **Iban Rodríguez Etxebarriak** eta **Estitxu Garai Artetxek**, EHUko Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko errektoreordeak, sinatu dute. Akordioaren helburua minbizia duten pertsonen ariketa fisikoaren preskripzioa optimizatzea da, esku-hartze seguruak, eraginkorrak eta paziente bakoitzaren beharretara egokituak bermatuz.

"Ariketa fisikoaren preskripzio pertsonalizatua minbizia duten pertsonengan: ebaluazioa, triajea eta egokitutako programak" proiektua **Ana Rodríguez-Larrad** irakasleak zuzentzen du, Ageing On Ikerketa Taldekoa, Euskampus Fundazioak bultzatutako Onko-On Misioaren esparruan.

ARIKETA EGOKITUA ETA SEGURUA

Ikerketaren arabera, ebaluazio-sistema bat jarriko da abian, parte-hartzaileak osasun-egoeraren eta gaitasun fisikoen arabera sailkatu ahal izateko, ariketa-programa egokituak eta seguruak diseinatzeko.

Esku-hartzeek hiru hilabeteko iraupena izango dute, astean bi saio izango dituzte, eta bizimodu aktiboari eusteko gomendioekin osatuko dira. Era berean, jarduera onkologikoan diharduten profesionalen prestakuntza aurreikusten du proiektuak, eta horri esker, udal-baliabideak indartu ahal izango dira eta horrelako programen jarraipena bermatu ahal izango da herrian.

Esparru horretan, Leioako Udalak, Jarduera Fisikoko Orientazio Zerbitzuaren (SOAF) bitartez, proiektuaren eskura jarriko ditu bere kirol-instalazioak eta beharrezko laguntza ekimena herritarrei hurbiltzeko, tokiko osasun-zentroekiko koordinazioa indartuz.

Aurkezpenean, Leioako alkate Iban Rodríguez Etxebarriak azpimarratu duenez, *"hitzarmen honek herritarren osasunarekin eta ongizatearekin dugun konpromisoa islatzen du. Leioa bere bizitzako etapa guztietan eta aurre egin beharreko edozein egoeratan pertsonak zainduko dituen udalerrira izatea nahi dugu"*, gaineratu du, *"ikerketa honek prozesu onkologiko bati aurre egiten dioten bizi-kalitatea hobetzeko bide itxaropentsua irekitzen du"*.

Estitxu Garai Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko errektoreordeak lankidetzak unibertsitatearen jardunean duen garrantzia azpimarratu du. *“Pertsonen eta komunitatearen ongizatean eragin zuzena izango du proiektu aitzindari honek eta guztiz bat dator komunitatearen zaintzarekiko unibertsitateak duen konpromisoarekin”*.

Azkenik, Rodriguez-Larrad ekimenaren zuzendariak azaldu duenez, eragile ugariaren arteko proiektu kolaboratiboa da hau —Osakidetza, Leioako Udala, Mugiment, Euskampus Fundazioa eta EHU— eta eskerrak eman nahi dizkiet erakunde guztiei proiektu hau posible egiteagatik. *“Ebaluazio-sistema aitzindari bat garatuko dugu, osasun- eta jarduera fisikoko orientazio-sistemetan heda daitekeena. Ezagutza berria sortzeaz gain, jarduera onkologikoan diharduten profesionalen prestakuntza integratuko dugu, baita jarduera fisikoko profesionalena ere, programak etorkizunean jarraipena izan dezan. Proiektua dagoeneko martxan dago, eta parte hartu nahi duen orok Leioako osasun-etxera joan eta bertan galdetzea besterik ez du”*, azaldu du.

Hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du, eta ez du kostu ekonomiko gehigarriarik izango, bi erakundeek jarriko baitituzte hitzarmena gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak.

Lankidetzak honekin, Leioak ikerketa aplikatuarekiko eta udalerrri eredu osasungarri eta berritzaile baten sustapenarekiko konpromisoa indartzen du.

SARE SOZIALAK:

LEIOA UDALA: [FACEBOOK](#) / [TWITTER](#) / [INSTAGRAM](#)

www.leioa.net

LEIOA GUREA

EL AYUNTAMIENTO DE LEIOA Y LA EHU DESARROLLARÁN EN UN PROYECTO DE INVESTIGACIÓN CONJUNTO PARA OPTIMIZAR LA PRESCRIPCIÓN DE EJERCICIO FÍSICO A PERSONAS CON CÁNCER

- Se trata de un proyecto pionero que pretende poner en marcha un sistema de evaluación que permitirá clasificar a las personas participantes según su estado de salud y sus capacidades físicas, con el fin de diseñar programas de ejercicio seguros, efectivos y adaptados a las necesidades de cada paciente.

(Leioa, 22 de septiembre de 2025).- El Ayuntamiento de Leioa y la Universidad del País Vasco (EHU) han formalizado hoy la firma de un **convenio de colaboración que permitirá el desarrollo de un proyecto de investigación pionero en el ámbito del ejercicio físico y su relación con el cáncer.**

El acuerdo, firmado por el alcalde de Leioa, **Iban Rodríguez Etxebarria**, y **Estitxu Garai Artetxe**, la vicerrectora del Campus de Bizkaia y Comunicación, tiene como objetivo optimizar la prescripción de ejercicio físico en personas con cáncer, garantizando intervenciones seguras, efectivas y adaptadas a las necesidades de cada paciente.

El proyecto **“Prescripción personalizada de ejercicio físico en personas con cáncer: evaluación, triaje y programas adaptados”** está dirigido por la profesora **Ana Rodríguez-Larrad**, del Grupo de Investigación *Ageing On*, en el marco de la *Misión Onko-On* impulsada por la Fundación Euskampus.

EJERCICIO ADAPTADO Y SEGURO

La investigación contempla la puesta en marcha de un sistema de evaluación que permitirá clasificar a las personas participantes según su estado de salud y sus capacidades físicas, con el fin de diseñar programas de ejercicio adaptados y seguros.

Las intervenciones tendrán una duración de tres meses, con dos sesiones semanales, y se complementarán con recomendaciones para mantener un estilo de vida activo. Asimismo, el proyecto prevé la formación de profesionales en ejercicio oncológico, lo que permitirá reforzar los recursos municipales y garantizar la continuidad de este tipo de programas en la localidad.

En este marco, el Ayuntamiento de Leioa, a través del **Servicio de Orientación en Actividad Física (SOAF)**, pondrá a disposición del proyecto sus instalaciones deportivas y el acompañamiento necesario para acercar la iniciativa a la ciudadanía, reforzando la coordinación con los centros de salud locales.

Durante la presentación, el alcalde leioaztarra, **Iban Rodríguez Etxebarria**, ha destacado que *“este convenio refleja nuestro compromiso con la salud y el bienestar de la ciudadanía. Queremos que Leioa sea un municipio que cuide de las personas en todas las etapas de su vida y en cualquiera de las situaciones a las que tengan que hacer frente”*, además ha añadido que *“esta investigación abre un camino esperanzador para mejorar la calidad de vida de quienes afrontan un proceso oncológico”*.

Estitxu Garai, vicerrectora del Campus de Bizkaia y de Comunicación, destaca la importancia de la colaboración en la actuación de las universidades. *"este proyecto pionero tiene un impacto directo en el bienestar de las personas y de la comunidad y es plenamente coherente con el compromiso de la universidad con el cuidado de la comunidad"*.

Por último, la directora de la iniciativa, Rodríguez-Larrad, ha explicado que este es un proyecto colaborativo entre numerosos agentes — Osakidetza, Ayuntamiento de Leioa, Mugiment, Fundación Euskampus y UPV-EHU — *"quiero agradecer a todas las instituciones por hacer posible este proyecto. Desarrollaremos un sistema pionero de evaluación que puede extenderse en sistemas de orientación sanitaria y de actividad física. Además de generar nuevo conocimiento, integraremos la formación de profesionales dedicados a la actividad oncológica, así como de profesionales de la actividad física para que el programa tenga continuidad en el futuro. El proyecto ya está en marcha y todo el que quiera participar no tiene más remedio que acudir al centro de salud de Leioa y preguntar allí "*, explica.

El convenio tendrá una **vigencia de cuatro años** y no supondrá ningún coste económico adicional, ya que ambas instituciones aportarán los recursos humanos y técnicos necesarios para su ejecución. Con esta colaboración, Leioa refuerza su compromiso con la investigación aplicada y con la promoción de un modelo de municipio saludable e innovador.

REDES SOCIALES:

LEIOA UDALA: [FACEBOOK](#) / [TWITTER](#) / [INSTAGRAM](#)

www.leioa.net

LEIOA GUREA